

(+34) 943 424119
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberi

FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Baigorri ospatu zen 6. Batzar Orokorra

Joan den apirilaren 1ean, igandea, Farmazilari Euskaldunen Elkarteak seigarren Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Baigorri (Nafarroa Beherea) ospatu zuen. Gure elkarte sortu zenetik, hasiera hasieratik izan da herrialde guztietan ezagutzera emateko asmoa. Horrela, Hegoaldeko hiriburu guztietan antolatu ditugu era bateko edo besteko ekitaldiak eta batzar orokorrak antolatzerakoan ere, beti saiatu izan gara herrialde ezberdinak bisitatzeko urte batetik bestera. Hala ere, oraindik ez genuen Iparraldean gure elkartearen berri emateko aukerarik izan, nahiz eta gai hau beti izan den zuzendaritza batzordearen mahai-gainean.

Aurtengo batzar orokorra antolatzerakoan, gure kide den Anje Arréguy baigorriarraren laguntza topatu genuen eta berak egindako lanari esker, Iparraldean ere aurkeztu dugu Farmazilari Euskaldunen Elkarte. Baigorriko Bil-Etxean egin zen batzarrean, joan den urteko lana eta egitasmoak aztertu ziren, aurreko batzar orokorraren akta, urteko oroitzatza-txostena, diru sarrera-irteerak, balantze ekonomikoa eta 2001eko aurrekontua onartu ziren. Era berean, Pello Iturria lehendakariak elkartearen asmoen eta egoeraren berri eman zuen.

Batzarari amaiera emateko, aipaturiko Anje Arréguy kideak hitzaldi bat eskaini

zuen hidrogeno sulfuroaren degradazioa lortzeko landu dituen bioiragazi metodoen inguruan. Izan ere, Anjek Bilboko Ingeniaritza Eskolan bere doktorego tesia aurkeztu berria du, gai honen inguruan egindako lanarekin lotua dena alegia. Dударik gabe, oso interesgarria izan zen entzule guztiontzat, bai alderdi teknikoaren aldetik eta baita euskarazko hitzen erabilpenaren aldetik ere.

Batzar ostean, Baigorriko Manexenea jabetzeko bazkaldu genuen eta urtean behin ospatzen dugun bilkura honetan, elkarrekin solasean aritzeko aukera ederra izan genuen guztiok.

Hemendik aurrera, zazpigarrenean pentsatzen hasi beharrean izango gara.





Cerivastatina eta rabdomiliosi kasuak

Botika-zaintzarako espainiar sistemak, "Cerivastatina" rekin zerikusia duten 34 rabdomiliosi kasu aurkitu ditu orain arte

Horiematik % 65 cerivastatinaz gain "gemfibrozilo" a ere hartzen zuten gaisoak ziren.

Rabdomiolisian estatinek eragina izan zezaketela gauza jakina zen, baina estatinen artean, dirudienez cerivastatina da, rabdomiolisi kasuekin gehien lotzen dena, azken ikerketen arabera. Ikerketa hauek bukatzeko daudelarik, espainiar medikamentuaren agentziak on-

dorengo puntu hauek gogoraraztea beharrezkotzat jotzen du:

- 1.- Cerivastatina eta gemfibroziloa ez dira batera eman behar, elkarketa honek rabdomiolisi arriskua handitzen baitu.
- 2.- Rabdomiolisi cerivastatinaren aurkako erreakzio bat da. Erreakzio hau dosiaren arabera da, beraz, odolean dosia igo dezaketen faktorerik balego, kontu bereziz eman beharko lirateke botika hauek. Adibidez, P450 zitokromoko 3A4 isoenzima eragozten duten botikekin, antibiotiko makrolidoak, onddoen aurkako imidazolak eta ciclosporinak hauen artean daudelarik.
- 3.- Cerivastatina dosia fitxa teknikoan araututakoaren arabera jarri behar

da, hau da, eguneko dosia gradualki igo behar da, 0'1 mgr.rekin hasi, inoiz 0'4 mgr. baino handiagoa izango ez delarik (dosia aldatu baino lehenago, gutxienez lau asteko tartea utzi beharko dugu).

- 4.- Gaisoari argi adierazi behar zaio muskuluetako minik edo ahultasunik agertuz gero, ahalik eta azkarren medikua jakinaren gainean jarzea beharrezkoa dela.
- 5.- Creatininfisfocinasa-ren igoerarik sumatuz gero, edo miopatia susmoren bat izanez gero, tratamendua bapatean utzi behar da.
- 6.- Fitxa tekniko arauak errespetatzea ezinbestekoa da.

Azkenik, osasunarekin lotutako profesional guztiei gogorarazten zaie, aurkako erreakzioen susmoen berri emateak zer garrantzi duen, susmo hauek, botika-zaintzarako espainiar sistemak autonomi elkarteetan dituen zentruen bidez jakinarazten da.



Norlevo Biharamuneko pilula

Koito ondorengo kontrazepzioa, dezenteko eskakizuna duen tratamendu bat da gaur egun, babesik gabeko sexu erlazioak izan ondoren edo eta beste aukeraren batek akatsen bat izan duen kasuetan.

Gehien erabiltzen den metodoa, 72 ordu baino lehenago estrogeno eta progestageno dosi altuak hartzea da, eta 72 ordu baino gehiago pasatu badira eta 5 egun baino gutxiago DIUa erabil daiteke, azken metodo hauen arrakasta oso ona da, baina ez da aholkatzen

neska erdigabeetan, eta talde hau izaten da gehien behartzen dena tratamendu hauetara. Gaur egun Yuzpe metodoa erabiltzen da gehienbat, (estrogeno eta progestageno elkarketa bat da hau), ondorengo eskema jarraitzen delarik:

- Etinilestradiol 0'1 mgr. + {Levonorgestrel 0'5 mgr. edo DL norgestrel 1 mgr.}

Lehenengo hartualdia 24 ordu baino lehen izan behar da eta bigarrena handik 12 orduz.

Beste nazio batzutan asko erabiltzen den metodoa, eta honera iritsi berria dena (Norlevo), honako hau da: Levonorgestrel 0'75 mgr. Lehenengoa ahalik eta azkarren hartu behar da (24 ordu baino lehenago) eta bigarrena handik 12 orduz edo 16 orduz gehienez.

Gibelean metabolizatzen da, beraz, gibealeko eritasunik dutenentzat ez da aholkatzen.

Ikerketek Yuzpe (haurdunaldien %75 eragozten du) baino eraginkorragoa dela erakutsi dute, bere arrakasta %85ekoa delarik. Hauek dira ikerketen emaitzak:

- 0-12 orduz hartuta: haurdunaldien %95a eragozten du.
- 12-24 orduz hartuta: haurdunaldien %83a eragozten du.
- 25-36 orduz hartuta: haurdunaldien %79a eragozten du.
- 37-48 orduz hartuta: haurdunaldien %66a eragozten du.
- 49-60 orduz hartuta: haurdunaldien %61a eragozten du.
- 61-72 orduz hartuta: haurdunaldien %47a eragozten du.

Aurkako erreakzio garrantzitsuenak hauek izan ziren: Gorakoak edo goragaleak, min hipogastrikoa, itolarria, zorabioa, eta gutxiagotan beherakoak eta gorabehera menstrualak ageri ziren.

Bioiragazketa

Hidrogeno sulfuroz kutsaturiko gas bat tratatzeko modua

Dakizuenez, joan den apirilaren lehenengo egunean Farmazilari Euskaldunen Elkarteak egin zuen bere VI. Batzar Orokorra Baigorriin. Batzarraren ostean Baigorriko semea eta FEUSEko kidea den Anje Arreguyren hitzaldia aditu genuen. Anjek maisuki azaldu zigun nola garbitu hidrogeno sulfuroz kutsaturiko gas bat bioiragaziaren bidez.

Anje, azaldu mesedez ikerketaren nondik norakoak.

Ikerketa-proiektu hau Pabeko, Euskal Herriko (Bilboko Injiniaritzza Goi Eskola) eta Nafarroako Unibertsitateen artean antolatu da, Euskadi-Akitania-Nafarroaren dirulaguntzarekin. 1997tik 2001era iraun, helburua izanez dokto-re-tesi baten aurkeztea.

Zein izan da ikerketaren xedea?

Ikerketa honen helburua izan da bioiragazketa teknikaren egingarria balioztatzea SH₂-aren tratatzeko. Hortarako, lehenik betegarriaren hautua egin da eta bigarrenik eragiketa-parametroak finkatu dira.

Lan honetan, SH₂ hautatua izan da bere berezitasunengatik, baita ere industria anitzen hondarkina baita.

Zeintzuk dira berezitasun horiek?

SH₂ gas garratza eta karruzkagarria edo korrosiboa da, baita ere usain txarrekoa eta oso pozoitsua bularra, digestio-aparatua, nerbio-sistema eta metabolismoarentzat. SH₂ botatzen duten industrien artean papergintza, industri petrokimika, ur zikinen garbiketa-unitateak, animali-hiltegiak eta abar ditugu.

Bioiragazketa teknika berria al da?

Ez. Azken 40 urteotan erabiltzen da usain txarren kasatzeko eta hogeitau urte hauetan konposatu organiko lurrinkorren tratatzeko. 1995ean, 600 bioiragazki baziren Europa guzian, gehienik

Alemania eta Holandan. Bioiragazkiak aurkitzen dira Mexikon eta Estatu Batuetan ere.

Zein da bioiragazketaren funtsa?

Teknikaren oinarria da gas kutsatua betegarrian zehar pasaraztea. Biofilm edo biopelikula osatzen duten mikroorganismo mugiezinduek kutsagarria, hau da, molekula toxikoak kontsumitzen dituzte. Erreaktoretik gasa garbiturik ateratzen da.

Zeintzuk dira teknika honen abantailak?

Funtzionamendu xaloa. Kutsagarria guttiz desagertzen da. Konposatu organiko lurrinkorren kasuan osatzen diren hondarkinak CO₂ eta SH₂ dira; SH₂-aren kasuan S⁰, SO₄²⁻, S₂O₃²⁻. Azkenik, teknika merkea da.

Eta desabantailak?

Garrantzitsuenak dira mikroorganismoen hazkuntza eta bizirik irautea. Sufre produktuen metatzea (S⁰, SO₄²⁻) eta, beraz, sistemaren eragozteak.

Zeintzuk dira betegarriaren ezaugarriak?

Lan honetan erabili dugun betegarria Zarrakatzeluko (Nafarroa) SLIR enpre-

sako konpost bat izan da. Produktu hori nekazal hondarkinez eta zuhaitz-azalez egina da eta ongarrri gisa erabiltzen da.

Zeintzuk izan dira emaitzak?

Bioiragazketaren eraginkortasuna bermatzeko parametro zenbaitzuk kontrolatu behar dira, hala nola pHa (neutralitateari ahal bezain hurbil), betegarria eta gasaren hezetasuna, temperatura (20°-40°C artean), karga galtzea erreaktorean zehar, gasaren egon-denbora bioerreaktorean ahal bezain laburra. Ikerketa honen emaitzak hauexek izan dira:

Eragina: %90-100 (SH₂ kontzentrazioa 50-150 ppm artean izanez)

SH₂ oxidazio-produktuak: S⁰ >%80; SO₄²⁻ eta S₂O₃²⁻=%5-15

Mikroorganismo aktiboak SH₂ oxidatzeko: Thiobacillus neapolitanus, Thiobacillus tepidarius, Thiobacillus thymosus (ARN hibridazioaren bidez identifikatuak). Lan honen emaitzak ikusiz heldu den helburua izan daiteke industria baten biogasa tratatzea, eman dezagun ur zikinen garbitzeko unitate batean.



Anje Arreguy



Zientziaren ekarria ardoaren munduari

Joan den maiatzaren 2an lagun talde bat bildu ginen Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialean "Zientziaren ekarria ardoaren munduari" izenburua zuen hitzaldia aditzeko. Diego Torrea Goñi lankide gaztea izan genuen hizlari eta solasaldia arras interesgarria izan zen. Dastaketa-saio praktiko batek akabera eman zion hitzaldiari. Ez da Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialean egiten den lehenengo hitzaldia euskaraz, ezta azkena ere izango. Izan ere, hurrengo udazkenean egiteko asmoa dugu. Guzti horren berri garaiz jasoko duzu.

Udako Euskal Unibertsitatea


Udako Udal Unibertsitateak -UEU- 29 urte bete ditu, horietatik Iruñako uztailko ikastaldietan hogeita bost. Biarritzeko ikastaldia uztailaren 2tik 6ra izanen da eta Iruñakoa, berriz, uztailaren 16tik 27ra.

UEUk hogeita hamaika ikastaro antolatu ditu. Hauen artean natur zientziak, psikologia, sexualitatea edo klimatologia sailak dituzu Biarritzen eta Iruñan, berriz, antropologia, fisika, informatika, kimika, natur zientziak edo osasuna sailak.

Argibide gehiago jasotzeko honako telefono hauek ematen dizkizugu: Baiona T. 0033559256056, Bilbo T. 946 790546, Donostia T. 943 467181, Eibar T. 943 821426, Gasteiz T. 945 144501, Iruña T. 948 222589.

Bazkide berriak egin

Aurreko Farmaberrin genioen moduan, zenbat eta kide gehiago izan orduan eta ederrago, indartsuago FEUSE. Horren kariatara Elkartek duela gutxi orri pare bat bidali dizkizu. Ezagutzen duzun farmazilari euskaltzale hori gure Elkartean izena eman dezan baliaigarriak izango zaizkizu. Ea gureganatzen duzun.



Edufar egitasmoaren barruan ere Koldo Gorostiaga lankideak "Eguzkia, larruazala eta fotobabesa" gai harturik Gernikako San Fidel ikastolako haurrei eskola eman zien

Beste hitzaldiak euskaraz

Edufar egitasmoaren barruan joan den urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean, Pello Iturria lankideak "Sendabelarrak zure farmazian" programa barruan Nafarroako Hizkuntzen Eskola Ofizialean euskararen azken mailetan dauden hogeita bat ikasle gazteri eskola eman zien. Era berean, maiatzaren 28an, Edufar egitasmoaren barruan ere Koldo Gorostiaga lankideak "Eguzkia, larruazala eta fotobabesa" gai harturik Gernikako San Fidel ikastolako haurrei eskola eman zien.

Lerro hauen bidez Anje Arreguy, Diego Torrea, Pello Iturria eta Koldo Gorostiaga bazkideek egindako bideari jarraitzea eskatzen dizuegu, hau da, farmaziari dagozkion euskarazko ekintza publikoetan, edozein direlarik ere, beldurrik gabe esku hartzea.